



Abortua libre eta doakoa eskatuz, Bilboko kaleetan egindako manifestazioa. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Caamaño dio kontzientzia eragozpena ezin daitekeela erabili abortuak ez egiteko

Gurasoen baimena behar izateak legez kanpoko erietxeetan abortatzera bultzatzen du, ministroaren ustez

Erredakzioa

Abortuak ez egiteko medikuek ezin dutela kontzientzia eragozpena argudiatu esan du Francisco Caamaño Espainiako Justizia ministroak. Hori egitea «desobediencia zibila» izango litzakeela adierazi du. «Ez dago Konstituzioak eta Espainiako Gorteek jasotako gain beste kontzientzia eragozpenik», adierazi du Caamaño. Ideia pertsonalak ezin direla legea ez betetzeko aitzakiazat erabili gehitu du ministroak, nahiz eta onartu duen badiela kontzientzia eragozpena behar duten egoerak. Ordea, abortua, Espainiako Gorteek soilik legezta dezaketela adierazi du Justizia ministroak.

Halaber, prestatzen ari diren abortuaren lege berriaren barruan, kontzientzia eragozpena argudiatzen duten sendagileen erregistroa sortzea baztertzeko erabakia hartu du Caamaño.

Egun, 9/1985 Legearen arabera, abortua delitua da, eta soilik hiru egoeratan aborta liteke. Urte hasieratik, PSOEko gobernuak abortuaren lege berri bat osatzeko lanetan ari da. Eztabaida ugari

ari dira sortzen legearen aldaketa batzuen inguruan. Gaur egun, sendagile batek hartutako jarre-erak emakume baten erabakia baldintza dezake. Nafarroan horren erakusle diren kasu ugari izan dira.

Argudio ohikoena Nafarroan

Esangura berezia dute Nafarroan Justizia ministroaren hitzek. Nafarroan ez da Espainiako abortuaren 1985eko legea betetzen, ez sare publikoan ez eta pribatuan ere. Abortatu nahi duten emakume nafarrek Nafarroatik atera behar izaten dute. Gehienek Aragoira (Espainia) eta Bizkaira joan behar izaten dute. Iaz, haiek erabakita, Nafarroan 700 emakumek eten zuten haurdunaldia, Espainiako Osasun Ministerioaren datuen arabera.

Nafarroan, Maria Kutz Osasun kontseilariak egindako adierazpen batzuen arabera, «Nafarroako osasun zerbitzuetako langile guztiak kontzientzia eragozleak dira, eta horregatik ez dute aborturik egiten». Arazoak ekiditeko kontzientzia eragozpena «arau-tzea» beharrezkoa dela adierazi izan du Kutzek. Haren esanetan, beraz, Nafarroako ospitale bakar batean ere ez dago haurdunaldia- ren borondatezko etenaldia egiteko sendagilerik. Mugimendu feministak aspaldiko urteetan salatu izan du Nafarroan abortuak ez egitearen erantzule nagusia Opus Dei erakunde erlijiosoa

dela. Eliza katolikoaren interesak defenditzen dituen erakundeak, eta Nafarroan indar eta botere handia duena.

16 urteko neskek eta gurasoak

Espainiako abortuaren lege proiektu berriaren inguruan eztabaida ugari ari dira sortzen. Jasotako proposamenean, hamasei urteko neskek ez dute gurasoen baimenik behar abortatu ahal izateko. Horren inguruan, Caamaño adierazi du proiektuan egin beharreko urratsak alde batera utziz, osasun arloan 16 urte-tik aurrerakoak adinduntzat har-tzen direla.

«Zergatik ezin du izan mota hauetako praktikentzat eta bai beste batzuentzat?», galdetu du Justizia ministroak. Gaineratu du gurasoen eta alaben arteko konfiantzak ez duela Zuzenbidea ordezkatzen. «Zuzenbideak ez-kontza arautzen du, ez amodioa», zehaztu du Caamaño. Hala, hamasei urteko neska batek abortatzeko gurasoen baimena behar izateak, neskek «baimenik gabeko» osasun sarean abortatzera eraman ditzakeela ohartarazi du. Nolabait, «sistema publikoak duen kalitate» ez luketela izango azaldu du.

Bibiána Aido Berdintasun ministroaren lege proiektuaren konstituzionaltasuna «guztiz» defendatzen duela adierazi du Caamaño. Baina negoziatzeko prest ere badagoela gaineratu du.

Gizon bat atzeman dute Lizarran, tratu txarrak emateagatik

Emazteari eraso egin ziola egiaztatu ondotik, gizona atxilotzen saiatu ziren foruzainak, eta haiei ere eraso egin zien

Erredakzioa Iruñea

Emazteari eta atxilotzera joandako foruzainei eraso egitea egotzita, 47 urteko gizona atzeman zuten ostiralean, Lizarran (Nafarroa). Kalean zaintza lanak egiten ari ziren foruzainek eztabaida bat ikusi zuten, eta hurbildu egin ziren. Bi emakume eta gizon bat aurkitu zituzten ika-mika, eta andreak jakinarazi zieten gizonak eraso egin ziola haietako bati, bikotekideari.

Gertatutakoa egiaztatu ondotik, gizona atxilotu egin zuten foruzainek. Ordea, agenteen aurka ekin zion hark, eta Foruzainoak jakinarazi du indarrez atxilotu behar izan zutela. Polizia etxera bidean ere kalteak sortu zituen foruzainen autoan. Horregatik guztiagatik egotzi dizkiote lau delitu: tratu txarrak behin baino gehiagotan ematea, zauriak egitea, agentei eraso egitea eta polizia autoa hondatzea. Foruzainoak jakinarazi du aurrekariak dituela atxilotuak. Epailearen eskuetan jarri dute dagoeneko.

Lizarrakoa ez da izan astebetean Nafarroan genero indarkeriagatik atxilotutako gizon bakarra. Iragan ostegunean, hilak 6, Valtierra joan ziren foruzainak, emakume batek jarritako salaketaren harira. Udaleko Gizarte Gaietako Sailaren ekimenez hartu zuten esku Foruzainoak. Datalak harrera etxe batera eraman zituen emakumea eta haren bi umeak, gizonaren tratu txarren ondorioz. Emakumeak salaketa jartzea erabaki zuen gizonaren aurka, eta ostegunean atxilotu zuten 27 urteko uestezko erasotzaila.

Salaketa jarri nahi ez

Igandean, hilak 9, Cintruénigoko 30 urteko gizonetako bat atxilotu zuten, bikotekideari tratu txar fisikoak eman zizkiolakoan. Emakumeak foruzainei esan zien gizonak eraso egin ziola etxean, eta ez ziola handik ateratzen utzi. Gizonak, ordea, ukatu egin zuten bikotekideari eraso egin izana. Are, foruzainei adierazi zien emakumeak eraso ziola berari, eta berak bere burua defendatu baizik ez zuela egin. Foruzainoaren arabera, ordea, ageriko zauriak zituen andreak, eta gizona atxilotu zuten. Emakumeak, ordea, ez zuten uestezko erasotzailaren aurkako salaketa jarri nahi izan.

Gazte bat atxilotu dute arreba biluzik ageri duten irudiak eskaintzeagatik

11 urteko arrebaren irudiak auto baten truke Interneten eskaini izana egotzen diote Iruñeko 18 urteko mutil bati

Erredakzioa Iruñea

Espainiako Poliziak 18 urteko mutil bat atxilotu du Iruñean, arreba biluzik ageri den argazkiak eskaintzen zituelakoan. 11 urte dituen neskatok, eta, haren argazkien ordainetan, Hyundai markako auto bat eskatzen zuten nebak, Internet bidez. Prostituzio delitua eta adingabeak galbidean jartzea leporatu dizkio Poliziak, eta, orain aske badago ere, epailearen aurrean deklaratzeko zain dago.

Espainiako Poliziak azaldu

duenez, Santanderren (Kantabria, Espainia) egindako operazio baten haritik atxilotu dute Iruñeko mutila. Iragan azaroan, 25 urteko beste gazte bat atzeman zuten, eta Iruñeko gazteak eskaintzen zituzten argazkiak atzeman zituzten haren ordengailuan. Atxilotuak Poliziari aitortu zion Interneteko solasgune batean lortu zuela mutilaren kontaktua. Ez zuten adostu irudi guztiak baldintza; aurkitutako horiek tratua egindakoan bidaliko zizkien irudien erakusgarriak ziren.

Poliziaren arabera, Nafarroan ohikoa den neska izena zuten neskatoren irudiak zituen karpetak, eta hura nondik bidali zuten ikertzen hasi ziren. Helbide elektronikoa topatu zuten, eta mutilaren atzetik irudiak zirela.